



UDAL BERRIAK

EUSKARAREN LURGUNA ZABALDU ETA SENDOTU NAHIAN

Azken asteotan zenbait udalek egin dute UEMAKO KIDE IZATEKO ESKAERA, eta UEMAK ABENDUAREN 17AN DEBAN EGINDAKO BATZAR NAGUSIAN ONARTU BERRI DITU UDALEN ESKAERA BERRIAK. HORRELA, ASTEASU, HERNANI ETA ASTIGARRAGA GEHITUTA, 97 UDAL DIRA DAGOENENKO MANKOMUNITATEKO KIDE, eta INOIZ BAINO ZABALGOA DA DENEN ARTEAN OSATZEN DUTEN LURGUNE EUSKALDUNA. ZEHAZKI, 302.500 BIZTANLEKO LURGUNA OSATZEN DUTE UEMAKO KIDE DIREN HERRIEK.

Udalerrri euskaldunak aldatzen ari dira. Horrela erakusten dute azken datu soziolingustikoeak, eta datu horien arabera UEMAKO KIDE IZATEKO MODUAN DIRA LEHEN ALDIZ ZENBAIT UDALERRI. Beste zenbaitek, berriz, orain hartu dute erabakia, euskararen ezagutzak gora egin arren erabilera apaltzen ari delako. Arrazoi batzuegatik zein besteengatik, azken asteotan Asteasuko, Hernaniko eta Astigarragako udalek erabaki dute UEMAKO KIDE IZATEA, eta UEMAK JOAN DEN ABENDUAREN 17AN EGINDAKO BATZAR NAGUSIAN ONARTU DITU HERRI BERRIEN ESKAERAK.

Udal barruko erabilera planak eta gainekoak bideratzeaz gain, UEMAREN EKARPENAK eta esperientziak udalen euskara zerbitzuak eta hizkuntza politikak sendotuko dituelakoan daude udal berriak. Datu soziolingustikoen harira, momentua “gako” delakoan daude, eta erabilerari eusteko ezinbestekoa irizten diote herritarren kontzientziazioari.

100 UDALEN MUGARRIA, CERTU

UEMAKO KIDE DIREN HERRIEN KOPURUA ETENGABE ARI DA GORA EGITEN AZKEN URTEOTAN, batez ere azken agintaldian, eta gero eta gertuago du mankomunitateak 100 udalen mugarrira.

2023an egingo ditu UEMAK hurrengo batzarrak, eta horietan ere herri berriak gehitzea eta 100 udalen muga gaitzitzea da aurreikuspena.



HERRIA: Asteasu
HERRIALDEA: GIPUZKOA (TOLosaldea)
BIZTANLEAK: 1.549
EUSKALDUNEN INDIZEA: %86,8

Azaroaren 23ko udal osoko bilkuran erabaki zuen Asteasuko Udalak UEMAN sartzeko eskaera egitea.

Erabakia aho batez hartu zuten, “momentu hau gako delako”. Pili Legarra alkatearen hitzetan, “ezagutza ez doa beherantz Asteasun, baina gora egiteko baliabideak beharrezkoak ditugu, arnagunea garen arren aldaketen aurrean zaurgarriak garelako oraindik. Hauskorrak dira gure herri txikiak, eta hizkuntza politika propioak landu nahi ditugu, UEMAREKIN eta Tolosaldeko beste udalekin batera”.



HERRIA: Hernani
HERRIALDEA: GIPUZKOA (BURUNTzaldea)
BIZTANLEAK: 20.362
EUSKALDUNEN INDIZEA: %70

Orainsu arte Hernanik ez zituen betetzen UEMAKO KIDE IZATEKO BALDINTZA soziolingustikoeak, baina Eustatek urrian zabaldutako eta UEMAK AZAROAN ezagutarazitako zentsuaren datuak kontuan hartuta, gaur egun %70 da Hernaniko euskaldunen indizea. Datu horrekin, UEMAKO KIDE IZATEKO MODUA DU LEHEN ALDIZ, eta azaroaren 29an egindako udal osoko bilkuran onartu zuen UEMAKO KIDE IZATEA. Biztanle kopuruari dagokionez, UEMAKO BIGARREN HERRI HANDIENA DA, Zarautzen atzetik.



HERRIA: Astigarraga
HERRIALDEA: GIPUZKOA (BURUNTzaldea)
BIZTANLEAK: 7.185
EUSKALDUNEN INDIZEA: %74,2

Azken urteotan euskararen ezagutzak gora egin duenez, euskaldunen indizea ere gorantz ari da Astigarragan, baina euskara lehen hizkuntza dutenak edota etxean erabiltzen dutenak behera doaz, nabarmen. Beraz, herritarren kontzientziazioan eragitea giltzarria delakoan dago Astigarragako Udala, eta horretarako UEMAREN esperientzia eta laguntza bidelagun izango du. Abenduaren 15eko udal osoko bilkuran erabaki zuten UEMAKO KIDE IZATEA.